Euskal idazleentzat deialdia, 2017ko udazkenean Frisian (Herbehereak) 8 asteko literatur sorkuntzarako egonaldia garatzeko

1. **Zer da *Beste hitzak* egonaldi deialdia?**

   Europako zenbait hizkuntza komunitate txiki edo/eta gutxituen arteko literatur trukerako sarea da *Beste hitzak*. Urtean komunitate bakoitzeko bazkide banak bi idazle hautatuko ditu Europako beste bi lurraldetan egonaldiak burutzeko; eta beste lurraldeetatik datozen bi idazleri harrera egingo die. Egonaldi horietan sortzen diren lanak komunitate parte hartzaileen hizkuntzetara eta ingelesera itzuliko dira, eta webgunean zein paperean zabalduko dira.

   Irlanda, Mazedonia, Eslovenia, Frisia eta Euskal Herria dira parte hartzen duten lurraldeak. Proiektuaren Euskal Herriko ordezkari ofiziala, eta bazkide liderra, Donostia Kultura da; gainera, DSS2016EU Fundazioaren, Euskal Idazleen Elkartearen eta beste zenbait eragileren laguntza izango du hau aurrera eraman ahal izateko.

2. **Zein dira proiektuaren helburu nagusiak?**

   - Hizkuntza gutxitu eta txikietan idatzitako literatura ohiko mugez gaindi ezagutarazten laguntzea.

   - Hizkuntza aniztasunaren balioa azpimarratzea, arreta berezia jarriz hizkuntza gutxitu eta txikietan eta itzulpenaren zereginean.

   - Literatur sistemaren prozesu osoa ikusaraztea, eta bertako eragileen (idazle, itzultzaile, antolatzaile…) lana publiko zabalari ezagutaraztea.

besteHitzak

3. **Zein dira epeak?**

   Proiektu proposamenak helarazteko epea 2017ko irailaren 11n amaituko da, gaueko 23:59an.

   Egonaldia 2017ko urriaren 23a eta abenduaren 18a bitartean garatuko da.

4. **Zer hautatuko da?**

   Euskaraz idatzitako literatur proiektuak hautatuko dira, idazle bakarrak 8 astetan sor dezakeen testuan gauzatuko direnak.

   Deialdiaren baitan osatuko den testu horrek nolabaiteko unitatea izan beharko du, unitate hori beste proiektu zabalago baten parte izan arren (nobela baten kapitulu bat, ipuin bat...). Betiere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzekin bateragarria izan beharko du.

5. **Zer dira literatur proiektuak?**

   Deialdi honen helburuetarako, literatur sorkuntzaren barnean sartzen dira fikzioa, poesia, ez-fikzio sortzailea (memoriak, entseguak...), nobela grafikoak, literatur kritika, literatur biografia/autobiografia garaikidea, gidoigintza eta antzerkigintza.

   Definizio honek (eta beraz deialdiak) kanpo uzten ditu idazketa erlijiosoa, instrukzionala eta akademikoa.

6. **Zer eskaintzen da?**

   - Bidaia gastuak
   - Ostatu gastuak (herrialdeko bazkideak egonaldirako aukeratatuko egoitzan)
   - Dietak: eguneko 30 euro.
   - Ordaina: 2.500 euro (bi hilabeteko lanagatik)
   - Testuaren argitalpena webgunean (5 hizkuntzara itzulita)

- Testuaren argitalpena proiektuaren paperezko antologian (5 hizkuntzara itzulita)
- Nazioarteko proiekzioa

7. Zer eskatzen da?

- Egonaldian zehar garatzeko proiektu literario proposamena.
- Egonaldian zehar 2 jarduera paralelo burutzeko proposamenak. Jarduera horiek jendaurreko ekitaldiak, haurrekin batera egiteko jarduerak edo beste idazle/artista batekin nolabaiteko elkarlanak izan daitezke, esate baterako.

8. Nola proposatu proiektu bat?

Jarraian aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu hautagaiak deialdian onartua izateko:

- Sorkuntza proiektua azaltzen duen txostena (gehienez 5 orrialde).
- Eguneratutako kurrikuluma (CV), literatur merituak eta ibilbidea azalduz (gehienez 3 orrialde).
- Izen emate fitxa (I. eranskina). Bertan, beste zenbait alorrez gain, arreta bereziz bete beharko dira literatur proiektuaren laburpena eta egonaldiaren jarduera paraleloen proposamena.
- NAN fotokopia.
- Zerga betebeharretan egunean egotearen egiaztagiria.

9. Zein dira hautaketarako irizpideak?

Honako alderdi hauek balioetsiko dira:

- Hautagaiak literaturaren eremuan aurretik egindako ibilbidea; argitalpenak, sariak... (CVaren bidez kontrastatua) eta bere esperientzia eta eskarmentua (erantsitako eredu eta materialen bidez kontrastatua) (%30).
- Hautagaiaren potentziala, literatur proiektuaren anbizioa, orijinaltasuna eta lehiakortasuna baloratuz (%30).
- Jarduera paraleloen balioa, horien orijinaltasuna eta eraginkortasuna kontuan hartuta (%20).
- Literatur proiektuak *Beste hitzak* egitasmoaren baloreekin duen lotura (hizkuntza txiki eta gutxituak, kulturarteko harremanak, itzulpengintza...) (%20).

10. Nork hautatuko du idazlea?

Balorazio batzordearen osaera ondorengoa izango da:

- Donostia Kulturak izendatutako bi kide
- Euskal Idazleen Elkarteko kide bat
- Literatura eremuko aditu bat

Balorazio batzordearen erabakia jakinaraziko da, www.donostiakultura.eus bidez, eta onuradunei, eman duten helbidera zuzenduz.

11. Zein prozedura jarraituko da?

Hautagaiek deialdiaren argitalpenetik irailaren 11 arteko epea izango dute proposamenak aurkezteko. Proiektu bat proposatzeko bi bide daude:

- Posta elektronikoa: beharrezko agiriak donostiakultura@donostia.eus helbidera bidaltzea ohiko formatu informatiko batean (.pdf, .odt, .doc).

- Posta arrunta: beharrezko agiriak, gutun ziurtatu bidez, hona bidaltzea: BESTE HITZAK-OTHER WORDS proiektua. Donostia Kultura. Erregina Erregeordearen kalea, 8. 20003 Donostia

Balorazio Batzordearen hautaketaren berri emango da www.bestehitzak.eus, www.otherwordsliterature.eu eta www.donostiakultura.eus webguneetan, prentsa-ohar bidez eta onuradunei, eman duten helbidera zuzenduz.

12. Zein dira aukeratutako idazleen betebeharrak?

Aukeratutako idazleak ondorengoetara behartuta egongo dira:

- Baldintza zehatzak idatziz jasoko dituen laguntzaren onarpen dokumentu bat sinatzea. Dokumentu horren bidez, sorkuntza egonaldia egiteko eta proiektu artistikoaren garapena burutzeko konpromisoa hartuko dute.

- Literatur sorkuntza lan bat garatu eta gauzatzea; eta, egonaldia bukatutakoan, gehienez sei asteko epean, sorkuntza lan hori Beste hitzak–*Other Words* ekimenaren kudeatzaileari bidaltzea.

- Sorkuntza egonaldian zehar, www.bestehitzak.eus web-orriko "Idazleen bloga" atala elikatzea, atzerrian izandako bizipenen berri euskal hizkuntz komunitateari ematea helburu.

- Tokiko komunitate bakoitzarekin egiten diren bitartekaritza ekintzetan parte hartzea. Sorkuntza prozesua eta bere lana gizarteratu eta hainbat talderengana gerturatzeko asmoz egonaldiarekiko paraleloan bi jarduera garatzea.

- Norbere esku jarritako espazioak erabiltzeko barneko arauak betetzea (ordutegiak, segurtasun protokoloak, materialen erabilera, instalazio erabilgarriak, eta abar).

13. Nola egingo dira ordainketak?

Diru horniduraren zenbatekoa ondorengo planteamenduaren arabera:

- Ordainsariaren % 40, deialdia ebazten denean, idazle bakoitzak laguntzaren onarpen dokumentua sinatu ondoren.
- Ordainsariaren % 60, egonaldia bukatzean, egindako lana aurkeztu ondoren.
- Dietak, egonaldia hasi aurretik, idazle bakoitzak laguntzaren onarpen dokumentua sinatutakoan.

14. Zein dira baldintzak jabetza intelektualari eta irudi eskubideei dagokienez?

Aukeratutako idazleak DONOSTIA KULTURAri Creative Commons-en Aitortu, Ez Komertzial, Lan Eratorririk Gabe (CC BY-NC-ND) 4.0 nazioarteko lizentzia emango dio egingo duen obraren gainean. Horri esker, DONOSTIA KULTURAk obra banatu eta hedatu ahal izango du, bai euskarri fisikoan, bai euskarri elektronikoan, bakarrik nahiz *"Beste hitzak–Other Words"* programaren emaitza diren beste obra batzuekin batera.

Aurretik esandakoarekiko modu gehigarri eta osagarrian, idazleak, era berean, izaera ez esklusiboaz eta igorgarriaz, mundu osorako eta legez ezarritako gehieneko iraupenerako, behar adinako ustiapen eskubideak

(OBRA erreproduzitzeko, itzultzeko, egokitzeko, moldatzeko nahiz beste edozein eraldaketa egiteko eskubideak) emango dizkio obraren gainean DONOSTIA KULTURAri, erakunde horrek honako jardun hauek gauzatu ahal izan ditzan:

i. Obra liburu fisikoaren formatuan eta formatu elektronikoan argitaratzea.

ii. Eta Obra ingelesera eta "Beste hitzak–*Other Words*" programan parte hartzen duten lurraldeetako hizkuntzetara itzultzea.

Adierazitako ustiapen eskubideak emango dira kalterik egin gabe, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, idazleari legozkiokeen egile eskubide moralei. DONOSTIA KULTURAk eskubide horiek behar bezala errespetatu beharko ditu.

Idazleak DONOSTIA KULTURAri ziurtatu beharko dizkio obraren originaltasuna eta bakezko ustiapena, lehen esandako baldintzetan; eta adieraziko du hura entregatzeko garaian ez duela obraren gainean DONOSTIA KULTURAri dagozkion eskubideen aurkakoa izango den inolako konpromiso edo kargarik hartu, eta ez duela hartuko.

Nolanahi ere, idazlea izango da, jabetza intelektualarekin lotuta, hirugarrenek obrarekiko aurkez dezaketen erreklamazio ororen erantzule. Gainera, DONOSTIA KULTURAri beharrezko kalte ordainak eman beharko dizkio, kontzeptu horien ondorioz etor daitezkeen erreklamazioetatik hari sor lekizkiokeen kalte galera guztiengatik.

Irudi eskubideei dagokienez, idazleak DONOSTIA KULTURA berariaz baimentzen du (i) haren irudia eta izena erabiltzeko; eta (ii) egun ezagutzen diren bitarteko tekniko guztien bidez haiek erreproduzitzeko, edozein euskarri ukigai nahiz ukiezinetan; hori guztia obra sustatu eta hedatzeko xedearekin. Baimen hori doan emango da.

15. Nola egokitzen da deialdia Datuen Babeserako legera?

DBLOn xedatutakoari jarraiki, hautagaiek emandako datu pertsonalak Datuen Babeserako Euskal Agentzian izen emanda duen Donostia Kulturaren jabetzako fitxategi batean gordeko direla jakinarazten dugu, eta deialdi honetan sortzen den harremana kudeatzeko erabiliko dira.

Interesdunak sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta oposizio eskubideak egikaritu ahal izango ditu DONOSTIA KULTURAren aurrean, helbide honetara idazki bat aurkeztuta (Erregina Erregeordearen kalea, 8. 20003 Donostia) edo ondorengo helbidera helaraziz: donostiakultura@donostia.eus.

Aukeratutako idazleari dagokionez, jakinarazten da proiektuaren webgunean argitaratuko dela idazlearen aurkezpen bat non izaera pertsonaleko datuak sartuko diren. Argitaratu aurretik, idazlearekin adostuko da testua. Halaber, idazlearen aukeraketa eta proiektua zabaltzeko, izaera pertsonaleko oinarrizko hainbat datu komunikabideei eman ahal zaizkiela jakinarazten da.

16. Zein dira onarpenaren baldintzak?

Deialdi honetan parte hartzeak arau hauek guztiak onartzea dakar. Era berean, herritarrek osatutako epaimahaiaren erabakia burujabe eta apelaezina izango da. Arautegi honetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, Donostia Kulturak izango du erabakitzeko ahalmena.

17. Non aurki daiteke informazio osagarria?

- www.bestehitzak.eus
- www.otherwordsliterature.eu
- www.donostiakultura.eus

18. Nola argitu zalantzak?

Telefonoz, 943 481150 zenbakian.